

# Atzera bota dute arto transgenikoa minbiziarekin lotzen zuen ikerketa

Arto transgenikoa minbizi-eragile zela frogatzen zuen ikerketa atzera bota du Food and Chemical Toxicology aldizkariak.

2012ko irailean, eztabaida eta kezka handiak sortu zituen aldizkari horrek berak argitaratu zuen

ikerketa hark. “Long term toxicity of a Roundup herbicide and a Roundup-tolerant genetically modified maize” izenburua zuen, eta ondorio nagusia zen arto transgenikoak minbizia sortu eta bizia laburtzen zuela.

Ikerketa argitaratu ondoren, hainbat adituk, tartean EFSAk, elikagaien segurtasunaz arduratzen den Europako agentziak, jakinarazi zuten ikerketak akats metodologiko handiak zituela. Aldizkariak, ordea, ez zuen neurrik hartu. Urtebete geroago, aldiz, aldizkariaren editoreak, Wallace Hayesek, eskutitz bat bidali zion ikerketa-buruari, Gilles-Eric Seraliniri, artikulua atzera bota-

tzeko eskatuz. Eskaerari men eginez, aldizkariak berak erretiratuko zuela ohartarazi zion.

Eskutitzean, ikerketak dituen akatsak gogorarazi zizkion Seraliniri, hala nola erabilitako arratoi-motak berez duela minbizia garatzeko joera, eta lagina txiki-egia zela. Hain zuzen, EFSAk berak ere aipatu zituen akats horiek bere txostean, beste batzuen artean.

Hala eta guztiz ere, editorearen eskutitza jaso ondoren, Seralinik bereari eutsi zion, eta artikulua erretiratzeko eskaeraren atzean Monsanto, arto transgenikoaren ekoizlea, dagoela salatu zuen. Izan ere, auzian zehar, garbi geratu da eztabaida ez dela arto transgenikoak osasunean izan dezakeen eraginera mugatzen, baizik eta beste faktore batzuk ere nahasten direla. Edonola ere, Food and Chemical Toxicology aldizkariak bere asmoa berretsi eta atzera bota du Seraliniren ikerketa. ●



Arto transgenikoa minbizi-eragilezat jo zuen iaz ikerketa batek, baina, orain, atzera botako dute, akatsak zituelako eta, beraz, ondorioak okerrak zirelako. ARG.: © ISTOCKPHOTO.

## Lagundutako ernalketan, Y kromosoma ez da beharrezkoa; nahikoak dira bi gene

Saguetan egindako ikerketa batean, frogatu dute lagundutako ernalketa-teknikak erabilia, nahikoak direla Y kromosomaren bi gene, ondorengo osasuntsuak eta ugalkorrek lortzeko. Hawaiiko Unibertsitatean egindako ikerketa, eta Science aldizkarian argitaratu dituzte emaitzak.

Monica Ward ikerketa-buruak Science-ren podcastean azaldu duenez, Y kromosoma “maskulinitatearen ikurtzat” jo izan da. Izan ere, Y kromosomarik gabeko enbrioak eme bilakatzen dira. Baina biologoek aspalditik

susmatu izan dute kromosoma osoa ez dela ezinbestekoa; hain zuzen, Y kromosomaren gene bakar bat, Syr genea, nahikoa da sagu-enbrioak ar bilakatzeko. Hori bai, ar horiek antzuak izaten dira.

Oraingo ikerketan, Syr geneaz gain, beste gene bat txertatu diete Y kromosomarik gabeko sagu-enbrioiei, Eif2s3y genea. Eta enbrio horietatik garatutako saguek espermatozoiden aurrekariak diren zelulak —espermatidak— sortzen dituztela frogatu dute. Are gehiago, lagundu-



ARG.: NIST

tako ernalkuntza-teknika berezi bat erabilia, espermatida horiek obuluak ernaltzeko eta ondorengoak sortzeko gai direla erakutsi dute.

Ikertzaileen esanean, ikerketaren zati hori garrantzitsua da, teknika hori bera, ROSI izenekoa, espermatozoide-fasera iritsi gabe espermatidak soilik sortzen

dituzten gizonezkoei lagundutako erabil baitaiteke. Aditu askok, ordea, “esperimentaltzat” jotzen zuten ROSI teknika, beldur baitziren horrela sortutako umeez ondorio kaltegarriak izango ote zituzten. Alabaina, saguetan behintzat, teknika segurua dela erakutsi dute Hawaiin egindako ikerketan. ●